


# «Ametsaren eta errealitatearen arteko desorekak dakar bizimina»



Altzako San Martzial plazako elizaren arkupean elkartu gara Joan Mari Irigoien idazlearekin, "Biziminaren sonetoak" poema liburuaz solasean aritzeko. Liburua ez ezik, sentimenduak, ideiak eta desioak ere izan ditugu mintzagai.

Testua: Inaki Lazkano  
Argazkiak: Alberto Elósegui

"Biziminaren sonetoak" poema liburua-  
ren oinarrian zure aita omen dago.

Halaxe da. Lope de Vega, Donibane Gurutzekoa eta beste hainbat poeta klasikoren soneto eta lirak buruz zekizkien aitak. Eta, gainera, errezitatu egiten zizkigun noiz edo noiz. Oso gogoan dut aitaren errezitaldi haiek sortzen zidaten lilura. Poema liburu honen azpian aitaren errezitaldien lilura hura aurki daiteke. Bestal-

de, euskal literaturan ez dago tradizio handirik ez sonetoetan, ez liretan. Sone-  
torik bada, baina. Izan ere, Oihenart-ek aspaldi utzi zigun sonetoa hartu dut oinarri poemon metrika finkatzerakoan. Bi hirukote eta bi laukote erabiltzen zituen poemak osatzerakoan Oihenartek; hama-  
bi silabako lerroak, tartean eten bat eginez.

**Zergatik dago hainbeste min zure olerkietan? Esperantzak ez al du leihorik?**

Inori baimenik eskatu gabe gatoz mundu honetara, eta galderak egiten dizkiogu geure buruari. Betiko galderak. Zer garen, nondik gatozen... Eta askotan hori mina dago. Eguneroko bizitzan egin dezakeguna baino askoz urrunago baitoa beti amets egiteko ahalmena; gure kontraesan mingarrienetakoa da hori. Desoreka horretatik datoz-eta gure arazo guztiak. Dialektika horretan nabil ni neu ere. Ar-

giari buruzko poema bat ere badu liburua. Izan ere, askotan argia albotik sartu eta gelan pausatzen da. Orduak pasa ditzaket argi horri begira; argi horren errealitate xumea gozatuz. Baina heriotzari buruzko poemak ere badira. Heriotza hor dagoelako beti, eta batzuetan larritu egiten gaitu... eta hori normala da. Pertsonak aldakorrek baikara. Aldakortasun horretan egoera ezberdinak daude, eta egoera guzti horiei erantzuna ematen saiatzen naiz. Erantzuten edo galderak egiten. Sarri galdera horiek ez baitute erantzunik.

**"XX. mendeko poesia kaierak"** olerki bilduman, zure poesiak joera ekialdeazalea duela dio Koldo Izagirrek.

"Hautsa eta maitemina" poema liburuan, bereziki. Bertan, isiltasuna da nagusi ia. Ekialdeko tradizioan, *haiku*-en kasuan adibidez —Japoniako poema laburrak—,

**"Kendu zidaten  
Altza hura hitzen  
bidez berreraikitze  
idazten dut"**

hitz gutxiarekin osatzen dira poemak. Liburu hura halaxe idatzi nuen: "Biziminaren sonetoak" liburuan ere badira Ekialdeko gaiak aintzat hartzen dituzten bi edo hiru soneto; "Oi, ur...!", esaterako. Mendebaldean angelu zuzenak eta ertz zorrotzak erakusten dizkiogu elkarri askotan. Ekialdean, ordea, beste emetasun bat dagoela dirudi. Egia esan, azken sasoi honetan dezente irakurri dut budismoaz zein Ekialdeko beste filosofiez. Eta, irakurtzearen irakurtzeaz, zerbait itsasten dela pentsatzen dut. Mendebaldeko zibilizazioan sortu garen guztioi filosofia horiek onartzea zaila zaigula aitortu behar dudan arren. Txikitatik lehiakortasun izugarrian murgildurik baikaude. Lehena izan behar duzu eskolan; onena futbolelan... Nire baitan, afdiz, hori gainditzeko ahalegina dago. Ondorioz, bake berezi bat lortzen dut zenbaitetan. Ez beti, ordea.

**Suminak samina urratzen du "Biziminaren sonetoak" liburuaren atal batean. Egunkaria-ren itxierak, batik-bat.**


Atxilotu zituzten pertsona gehienak ezagunak edo lagunak nituen. Hain gehiegikeria handia izan zen... Pentsatzen dut euskaldun askok bizi izan genuela barru-barrutik bidegabeke-ria hura. Ez zelako pertsona batzuen aurkako eraso soila, proiektu baten aurkako eraso baizik. Euskararen kontrako eraso. Ikusi dugu PPK nola bukatu duen, zorionez. Nafarroan ere hala ari dira. Han gehiengoa dute, eta euskara suntsitu, ezabatu eta desager dadin nahi dute. Garbi dago. Hemen ere antzeko zer edo zer egin nahi zuten. Seguru nago. Hori guztia islatzen da soneto horietan, halako asaskaldi nahi bat dago. Horrexegatik idatzi nituen.

**Iñaki Uriak duela zenbait urte Argia aldizkarian egin zizun elkarriketa bate-**

**an, euskara zenuela aberri zenioen.**

Berdin pentsatzen jarraitzen dut. Aberria ez da soilik hori, noski. Hala ere, pentsatzen dut euskara dela gure berezitasun nagusia. Arimaren adierazpidea hizkuntza baita. Euskal Herriaren funtsezkoa da euskara. Euskarak etorkizunik ez duela jakin-go banu, beste leku batera joango nintzateke bizitzera. Hala, ez nukeelako sufrutuko. Dena dela, euskararen aldeko proiektu ekologiko batean —arimaren ikuspegitik— aritzeak ere badu alde ona. Euskarak ez dakarrelako soilik sufrimendua; poza era badakar. Ez gara beti negarrez ibiliko...

**Malenkoniak diharduzu usu. Baserri giroko Altza hura omen da zure malenkoniaren errudun nagusia.**



Birjin-birjinak ezagutu nituen paraje guzti hauek. Nire haurtzaroko sinboloa da Larratxoko errekatxoa. Oso leku berezia zen niretzat. Gaur egun ez dago errekarik. Dorre madarikatu batzuen azpitik baitoa. Inguru horretatik pasatu, eta oraindik ez naiz ohitzen. Haurtzarora errotik kendu izan balidate bezala. Eta, apika, horregatik idazten dut. Kendu zidaten mundu hori hitzen bidez berreraikitzeke, nolabait. Hori guztia gutxi balitz bezala, Auditza Akular egitasmoaren mehatxupean gaude orain. Geratzen zaigun apurra mantendu beharko genuke.

**Madrilgo gauak Bagdadekoak baino tristeagoak al dira?**

PPK gorrotoa eta gezurra erein du, eta ereindakoa jaso du. Gorrotoa jaso du. Izan ere, Bushek, Blairrek, Aznarrek eta enparauk zer egin dute Iraken? Irakiarrak ez al dira pertsonak, ala? Han ere badira pertsonak. Senar-emazteak izango dira. Amoranteak izango dira. Haurrak izango dira... Eta han egunero-egunero gertatu izan dira halakoak. Zergatik? Petrolioarengatik. Lapurreta izan da, besterik ez. Han halako gauzak ereiten badira, zer jaso behar dugu? Madrilan gertatutakoa justifikazina da. Baina askotan ahaztu egiten zaigu guk erein dugula. Gurea ez dela inondik ere zuzena. Krimena dela.

**Itoizko Solidarioei ere poema bat eskaini diezu.**

Argi ikusi da bertan boterearen joko. Legeak kontra izan arren, gehiengoa erabiliz nola aldatu dituzten beraien helburuen arabera. Eta horrek amorratu egiten nau. Gainera, Solidarioek borroka eredugarria egin dutela uste dut. Euskal Herriaren horrelako borroka motak nagusitu beharko lirarteke. Ignominiaren historia izan da

Itoizkoa, eta nire sinpatia adierazi nahi nien Solidarioei soneto batean gutxienez.

**Zure mina ametsaren eta errealitatearen arteko desorekaren ondorio dela aitortu duzu. Oso belaunaldi idealista da zurea. Ametsaren naufragoak al zarete?**

Halaxe dela uste dut. Kontua da pixkanaka egokitu behar duzula. Baina duela 30 urte esan izan baligute gaur egun egoera honetan egongo ginatkeela, ez genukeen sinetsiko. Felipe Gonzalez boterera iritsi zenean poztu ginela oroitzen dut. Ezker-

## Kultur leihoa



## "Gorrotoa erein du PPK, eta ereindakoa jaso du"

tiarrak zirenez, arnas berria ekarriko zutela pentsatzen genuen. ETArekin hitz egingo zutela eta hemengo auzia bideratuko zela. Ikusten duzu zein inuzenteak ginen. PSOEek irabazi du orain, eta poztu egin naiz. Baina ez naiz fido. Esperantzaxo bat badut, baina ez naiz fidatzen.

Ba al da herri honetan apurtutako zubiak konponduko dituen arkitektoirik?

Ahalegina egin behar da zubiak berreraikitzeke. Dena dela, EAJ eta PSE-EE elkartu egingo direla uste dut. Baina pentsatzen dut, beharbada, EAKo sektore batzuetatik

## "Han goitik itsasoa ikusten da"

• ELKAR • Julen Gabiria • 236 orrialde

Igartza Sariaren laguntzaz idatzi du Julen Gabiria gazteak azken nobela. Euskal Herrian, gerra aurreko urteetan, abiatzen da istorioa. Baina, berehala, II. Mundu Gerra sasoiko Italiara garamatza egileak. Euskal Herriko Itzulian ikusiko du estreinakoz Gino Bartali txirrindulari handia Roman Alberdi mutikoak. Erbestera bidalitako umea dela, Frantziako Tourrean topatuko du hurrena. Injustiziaren aurka matxinatzen diren pertsonaia liluragarritz jositako eleberri hunkigarria da.



## "Buda zoriontsuen etxea"

• TXALAPARTA • Joao Ubaldo Ribeiro (Itzultzailea: Karlos Zabala)

Joao Ubaldo Ribeiro idazle brasildar entzutetsuaren "Buda zoriontsuen etxea" liburu polemikoa itzuli berri du Karlos Zabala Oñartzabalek. Bizitza libertinoa izandako 68 urteko emakume brasildarra da narratzailea. Harentzat bizitza larrua jotzea omen da. Hortaz, sexuaren aldeko apologia egiten du protagonistak. Portugalgo hainbat saltokitan zentsuratu egin zuten "Buda zoriontsuen etxea".




## "Gris-zilarra"

• OIHUKA • Bad F-Line

Bosgarren diskoa dakarkigu Bad F-Line talde arrasatearrak. Ohi legez, punk, techno nahiz musika industrialak uztartu dituzte azken diskoan.

"Gris-zilarra" koloreak bitan zatitzen du diskoa. Batetik, zazpi abesti berri daude. Bestetik, aldiz, zortzi "manipulazio-kantu". Hitzak gordiak dira. Sexuak ziprztintzen ditu abesti gehienak. Musika aditu asko terrorismo poetikoaz mintzatzen da Bad-F-Line izendatzerakoan.



Ezker Abertzaleraino, su-eten mugagabe batekin, herri honi itxaropena ekar diezaiokeen mugimendu bat sor daitekeela. Polita litzateke Lizarra-Garaziko espiritua berpiztuko balitz. ELA eta LAB sindikatuek daramaten bidea eredugarria da. Ildo horren inguruan tratu batera iritsi beharko genukeela iruditzen zait.

Zein egitasmo dituzu eskuartean?

Nobela batean nabil lanean. "Ipuin batean bezala"-ren antzekoa izango da, baina futbolaren ingurukoak. Datorren urtean, berriz, "Lur bat haratago" eleberriaren mailako apustu bati ekin nahi nioke. Beste parametro batzuetan, noski. Eta beste aro bat jorratuz.